a m a r a   b e r r i k o   e g u n k a r i a

10. zb

AZAROAK 4 asteazkena

# ABE



Gorka,Jon,Gilen eta Antxon

www.amaraberri.org   amaraberrimor.abe@gmail.com

## Langile bat hil da Bilbon,solairutik erorita



Berrogeita bost urteko bilbotar gizonezkoa da hildakoa.Udalaren eraikin bat handitzeko beharrean ari zen.Ernesto Erkoreka plazan. 8:30ean izan da lan instripua.LABen arabera,aurten Euskal Herrian hil den 76 behargina da gaurkoa.

## R.MADRIL MILANEN AURKA

**R.madrilek berdindu zuen Milanen aurka 1-1 San Sironen. Benzemak sartu zuen R.Madrilen gola 29. minutuan eta Ronaldinhok penaltiz 35.minutuan Milanen gola.**

VS

## A G U R R A

Kaixo lagunok gu Jon,Gilen,Gorka eta Antxon gara. Espero dugu A.B.Ea gustatzea, barruan Saski - Naski,Lumaren Kilima eta abar gauza daudelako. Agur eta ondo pasaaaaaaa!!!!



## a u r k i b i d e a

1.- PORTADA: R.madril vs Milan,Langile bat hil da Bilbon
2.- ELKARRIZKETA: Ibai
3.- SASKI NASKI:Txinako Dinastiak
4.- LUMAREN KILIMA:Deskribapen magikoa
5.- GU ERE IDAZLE:Hizki Zopa
6.- ENTRETENIGARRIAK:Ezkutitza

# gaur eta hemen

Gaur da Itsasneren urtebetetzea,10 urte bete ditu zorionak A.B.E egiten dugunen partetik



## Ibaiekin Hizketan

ELKARRIZKETA

1-Zein da zure futboleko jokalaririk gustokoena?
C.Ronaldo
2-Ze liburu gustatzen zaizu?
El niño del pijama de rayas eta Jeronimo Stilton
3-Ze kamiseta marka gustatzen zaizu?
DC
4-Zein da zure lagunik hoberena?
Noel
5-Zein da zure musika talderik hoberena?
Ez dakit
6-Zein da zure bideojuego hoberena?
Futbolekoa
7-Zein da zure pelikula hoberena?
Ez dakit
8-Zein da zure klase hoberena?
Soinketa eta Plastika

Ibai Quintanilla



saskinaski

# Txinako Dinastiak

Txinan Han dinastiak 400 urtez agindu zuen eta bere agindupean Txina mendebaldera zabaldu zen. Eta merkataritza igo egin zen Zetaren bidea bete arte, gero hiru erresumetan banatu zen (581-618).Marko polo Veneziatik irten zen 1271 urtean 17 urte zituela aita Nikolasekin eta  osaba Mateorekin Asian zehar.1275-1292 Txinan barrena bidaiatu zen eta 1274an Kublain-Khanen enperadore Mongoliarren jauregia bisitatu zuen,Yuang dinastia garaian.Ming dinastiak Mongoliarrak kanporatu zituen.1644an Mantxuek Qing dinastia ezarri zuten.Ming dinastia garaitu ondoren.



Egilea:Ezezaguna

# DESKRIBAPEN MAGIKOA

Ni txikia eta borobila naiz,beno batzuetan handia ere izan naiteke, baina normalean txikia. Erabilera oso egokia dut eta pertsonek erabiltzen naute, Mendira eramaten naute normalean eta handik itzulitakoan kajoi batean jasotzen naute gero berriro hartzeko.

Beti bezalaxe egun batean hartu ninduten, baina kalera ateratzera-koan ez zegoen beti bezalako eguraldia,oso hotz sentitu nintzen eta hain hotza nengoen ez nueala ia-ia nere gorputza sentitzen, gero motxilako poltxiko batean sartu ninduten eta han hobeto nengoen bainan ondoan bote handi bat neukan, urdina zen eta oso handia, txikia sentitu nintzen bote horren ondoan eta gainera barnean ura zeraman. Askotan ateratzen zuten eta ondoren sartu.

Denbora asko pasa nuen gauza urdin horren ondoan, baina bapatean atera ninduten eta ireki ere, hotz handia sentitu nuen eta gauza txuriak erori zitzaizkidan ,mugitu ninduten baina nere orratzak norabi-de bat markatu ondoren gelditu ziren, eta esan zuten:-Eskerrak,bestela galduta egongo ginen, hau itzela da.Hori esan ondoren itzel sentitu nintzen ,bainan bapatean lurrera erori nintzen eta gauza txuriz estalita gelditu nintzen, oso hotz nengoen eta pertsonei entzun nien:-Oh ez ! non dago?
beno orain badakigu behintzat nora joan. Neri han utzita joan ziren eta hotzez hil nintzen,baina beno behintzat lagundu nien nora joan jakin zezaten eta niregatik salbatu zirela dakit gainera oso ondo pasatzen nuen kajoi horretan argia ematen zuen gauza urdin batekin nengoen, us-te dut lirterna deitzen zela. Baina orain hilik nago. Amaiera.



Egilea: Irati Peluaga

# GU ERE IDAZLE

## HIZKI ZOPA

Gaia:Kirolak

Araua: Aurkitu 8 kirol ezkerretik eskubira,goitik behera betik gora eta zeharka.



| | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| e | b | e | a | r | e | i | i | n | o | t | i |
| r | t | e | n | i | x | a | a | a | r | f | o |
| k | z | l | e | x | m | y | y | t | m | f | l |
| u | y | x | k | k | e | k | b | a | t | x | a |
| p | l | h | a | j | i | l | p | n | b | o | b |
| i | e | j | o | k | p | i | n | p | o | n | i |
| l | k | o | r | r | i | k | a | l | a | r | i |
| o | o | r | q | l | s | a | a | x | y | z | z |
| t | f | a | f | u | e | b | o | l | a | l | a |
| a | a | u | p | q | r | s | a | f | a | l | s |

# EGURALDIA



lainotuta

Momentu onetako tenperatura:16°
Atzoko tenperaturarik beroena:17°
Gau honetako tenperaturarik hotzena:10°
ZERUA:Lainotuta
LURRA:Bustita
HAIZEA
Haize mota:Haizeska
Haizearen norabidea:Mendebaldetik
EURIA
Euri mota: Ez du ari
PRESIOA
Momentu honetako presioa:1.012mb
Hurrengo orduetarako prebisioa:Euria egin dezake

Esaera zaharra:Arrats gorri goiz haize.



## abe hitza aurkitu

## portadakoak ez du balio

entretenigarriak

# ESKUTITZA

Kaixo Pakito:

Zer moduz zaude?Oso politak ziren Donostiako kostak ezta?Ze pena hil zinela oso gogorra izan zen.

Zu bezalako asko daude baina ez zu bezain politak.Ni bakarrik aldi batez ikusi zintudan.

Non bizi zinen?Umeak zituzun? Zen bat urterekin etorri zinen Donostiara?

Nik txikitatik  ezagutzen zintudan 0 urtetatik 6 urte arte.



Bueno laguntxo ondo pasa.Agur.



*Egilea:Ander Liguori*